



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2017ko UZTAILAREN 27an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2017ko uztailaren 27an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Uxue Etxebeste Eizagirre
Xabier Mugika Letamendia

Bere ezin etorria azaltzen dute: Jose Ramon Hernandez Cristobal, Koldobika Jauregi Zinkunegi eta Onintza Gorostidi Murua

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
 - **2017ko maiatzaren 30ean egindako ohiko bilkuraren akta.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. 2/2017 Kreditu aldaketaren onespena, hala bada.**
- 5. 2016ko Kontu Orokorraren behin betiko onespena, hala bada.**
- 6. E.O. andreak eginiko eskaera aztertu, hala bada.**
- 7. Txantxangorri aldizkarian herriko jaietako publizitatea jartzeko onespena, hala bada.**
- 8. Alkizako Udalarentzat hirigintza eta arkitektuarari buruzko aholkularitza zerbitzuen esleipena, hala bada.**
- 9. Herriko jaietan egiten diren gastu justifikagarrien onespena, hala bada.**
- 10. Artxibo lanak egiteko aurrekontuaren onespena, hala bada.**
- 11. 2017 urterako langileen opor egutegiaren onespena, hala bada.**
- 12. 2017 ekitaldirako langileen ordainsariei buruzko Eudelek eginiko gomendioaren onespena, hala bada.**
- 13. Alkizako herritarrei euskara ikasketak burutzeko diru-laguntzaren eskaeraren onespena, hala bada.**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

14. Arrate irratia aurkezturiko aurrekontuaren onespena, hala bada.
15. Muga Runch-ek eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.
16. Beleburupe guraso elkarteak eginiko diru-laguntza eskaeraren onespena, hala bada.
17. Leteberri-Garro bidearen konponketa lanen esleipena, hala bada.
18. Alkizako baserrien seinaleztapenaren esleipena, hala bada.
19. Alkizako hilerrian egin behar diren lanen esleipena, hala bada.
20. Beste batzuk.
21. Erregu, galdera eta mozioak.

LEHENEN PUNTUA

AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA

- 2017ko maiatzaren 30eko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

12/2017 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 20koa, E.O. andreak eginiko eskaera onestea, non Alkizako Txabola izeneko eraikinerako udal ur hargunetik ura hartzeko lanak egiteko obra baimena ematea, ebazten duena.

13/2017 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 21koa, E.S. andreak eginiko eskaera onestea, non Alkizako Jazkun etxeraino gasa eramateko lanak egiteko obra baimena ematea, ebazten duena.

14/2017 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 21koa, 2017-KALD-000002-00 Kreditu Aldaketa espedienteari hasiera emateko onespena ematea, ebazten duena.

15/2017 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 23koa, Alkizako udaleko 2017 urteko lehenengo seihilabeteko zabor tasaren udal errolda onartzea, ebazten duena.

16/2017 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 11koa, A.M.E. andreak eginiko eskaera onestea, non Alkizako Kukutegi etxeko fatxadan margotze lanak egiteko obra



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

baimena ematea, ebazten den.

17/2017 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 11koa, J.A. jaunak eginiko eskaera onestea, ebazten duena, non Alkizako Bengoetxe fatxadan margotze lanak egiteko obra baimena ematea onartzen den.

18/2017 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 26koa, Larraulgo udalari, herriko jaietan erabiltzeko, 200 aulki uzteko baimena ematea, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

IBERDROLA	49,32
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	4.196,64
EDU ZABALA	176,47
EUSKALTEL	66,44
AUDAX	112,50
AUDAX	207,25
AUDAX	134,07
AUDAX	162,89
AUDAX	83,32
AUDAX	77,42
AUDAX	59,90
AUDAX	29,56
AUDAX	32,71
AUDAX	40,74
GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALA	61,38
MOVISTAR	81,81
BERRI LANTEGIA	44,00
TOLOMENDI	152,50
CALPARSORO INDUSTRIAL	133,75
ARGITU	258,47
MOVISTAR	74,64
KEY-LAN	9,98
BIDATEK	943,80
FONTANERIA ANTZIETA	320,88
ITURRALDE INDSTRIAGAIK	83,25
SOLRED	50,00



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

EBA ERKIZIA	1.524,60
IBERDROLA	36,64
BULEGOAK	186,78
AUDAX	107,98
AUDAX	541,04
AUDAX	52,35
AUDAX	20,10
AUDAX	49,98
AUDAX	36,60
AUDAX	77,52
AUDAX	152,78
IZADI	193,60
EGIMENDI	40,00
CORREOS	15,39
RECAMBIOS IBARRA	14,64
TOLOMENDI	152,50
EGIMENDI	7,01
ROTULAN	184,77
RECAMBIOS IBARRA	4,96
GILBE	36,46
QUIMICA DE MUNGUIA	90,43
ACSOL ENERGIA	157,14
ARGITU	158,85
CALPARSORO INDUSTRIAL	116,49
EBA ERKIZIA	1.187,20
MOVISTAR	74,40
SOLRED	111,63
TOLOMENDI	152,50
GURDI	35,60
MOVISTAR	70,00
ACSOL ENERGIA	534,15
DONOSTI INGENIERIA Y PROYECTOS	968,00

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **14.735,78** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LAUGARREN PUNTUA **2/2017 KREDITU ALDAKETAREN ONESPENA, HALA BADA**

Udala honen 2017 urteko Aurrekontuari eragiten dion gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarri bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientearen berri eman da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, zeinak adierazten baitu aipatutako espediente aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola, zehazki abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa denak 34.1 artikuluan ezarritako beharkizunei egokitzen zaiola.

Eztabaidatu ondoren bototara jarri eta bertaratuek, aho batez honako hau

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Proposamenean zerrendatzen diren gastuen kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onespena ematea, Udala honen Aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

Gastuak eta kreditu aldaketa egiteko proposamena

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.163.153.40.05 2017	PERTSONALAREN BIZI A. BRIGADA	250,00	5,03	255,03
1 0000.163.920.00.05 2017	PERTSONALAREN BIZI A. ADMINISTRA	900,00	250,01	1.150,01
1 0000.141.920.00.01 2017	garbitzaile ordezkapenak	0,00	750,00	750,00
1 0000.220.332.10.02	LIBURUTEGIKO FONDO	800,00	135,00	935,00



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2017	ETA HARPIDETZAK			
1 0000.220.920.00.02 2017	PRENTSA ALDIZKARI ETA BESTE	300,00	200,00	500,00
1 0000.221.230.00.03 2017	DON JUANENA GASA	1.300,00	500,00	1.800,00
1 0000.221.330.00.01 2017	KULTUR ETXEKO ARGINDARRA	1.500,00	300,00	1.800,00
1 0000.221.920.00.05 2017	JANTZIAK	200,00	100,00	300,00
1 0000.222.920.00.02 2017	korreoa	300,00	100,00	400,00
1 0000.623.161.00.02 2017	ur bomba berria	0,00	3.500,00	3.500,00
1 0000.481.340.00.03 2017	AIZTONDO ETA DANENA DIRULAGUNTZA	2.000,00	540,00	2.540,00
1 0000.683.933.00.02 2017	HERRI OSTATUKO BERRIKUNTZAK	5.000,00	260,00	5.260,00
1 0000.226.172.00.06 2017	ingurumena babesa iharduera soziokultura	0,00	1.600,00	1.600,00
1 0000.623.311.00.01 2017	desfibriladorea	0,00	2.300,00	2.300,00



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

1 0000.623.419.00.04 2017	erle habiak suntsitzeko aparatua	0,00	2.000,00	2.000,00
1 0000.625.153.00.01 2017	alkizako auzo eta baserri bideen seinale	20.011,16	2.000,00	22.011,16
1 0000.622.164.00.01 2017	kanposantuko obrak	0,00	11.000,00	11.000,00
1 0000.227.334.00.07 2017	Aiztondo aholkularitza juridikoa	0,00	750,00	750,00
1 0000.623.342.00.01 2017	musika ekipoa mikrofonoa	300,00	29,00	329,00
1 0000.369.920.00.01 2017	Finantza gastuak	0,00	50,00	50,00
1 0000.230.920.00.01 2017	PERTSONALAREN DIETAK, LOKOMOZIO	620,00	300,00	920,00
1 0000.211.230.00.01 2017	don juanena etxeko konponketak	2.000,00	600,00	2.600,00
1 0000.227.332.00.05 2017	Artxibo antolaketa	0,00	1.694,00	1.694,00
1 0000.480.335.00.01 2017	EUSKERAKO DIRULAGUNTZAK	1.000,00	101,00	1.101,00



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

GUZTIRA	36.481,16	29.064,04	65.545,20
----------------	-----------	-----------	-----------

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
c	2 0000.720.000.00.03 2017	Bide seinalizazioa	14.153,96
a	2 0000.870.000.00.01 2017	KREDITU GERAKINA 2016	14.910,08
FINANTZAKETA GUZTIRA			29.064,04

BIGARRENA.- Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita eta hamabost eguneko epean, espedientea jendaurrean ipintzea edonork egoki dituen erreklamazio zein iradokizunak burutu ditzan. Baldin eta erreklamaziorik egongo ez balitz, espedientea behin betikotzat onartuta geratuko litzateke besterik gabe.

HIRUGARRENA: 2017ko ekainaren 21ean egindako Kontuhartzailearen komunikazioa onestea, non azaltzen den:

“Kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2017rako ezarritako helburuak edota gastu araua. Beraz, toki entitate hau behartuta legoke, berez, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Hala ere, aurrekontu egonkortasunaren helburua edota gastuaren araua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakina erabili izana denez, 1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan eta Jarraibidearen 3.erregelan ezarritakoari jarraituz, kontu hartzaile honek berriazko txostena egin du, honako honi erantsi zaiona, udalbatzarrari jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomikoa ordezkaturiko duena.

“Kontuan izanda 2017rako ezarritako zor helburua betetzen dela eta aurreko urteko likidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izan direla, Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2013ko eta 2014ko azaroaren 19ko Jarraibidearen 3. erregelan ezarritakoari jarraituz, kontu hartzaile honek berriazko



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

txostena hau egin behar du eta udalbatzarrari jakinaraziko zaio, plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.

Dena den, gaikuntza espedienteak honako finantziakzioa du :

-Sarrerren gehitzea.....14.153,96€
-Diruzaintza gerakina..... 14.910,08€

Eta argi eta garbi ikusten da gaikuntza espediente honek ez duela entitatearen finantza iraunkortasuna eta aurrekontuaren egonkortasuna zalantzan jartzen.”

BOSTGARREN PUNTUA

2016KO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 21/2003 Foru Arauak, Toki Erakundeen Aurrekontuari buruzkoak, 62 eta hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraituz, Kontu Orokorra egin dela, ekitaldiko aurrekontuari buruzkoa, aparteko aurrekontuari nahiz ondasunei eta diruzaintzari buruzko operazio guztien adierazgarri dena. Kontuetako Batzorde Bereziaren txostena lortu ondoren, jendaurrean egoteko tramitean jarri dela, 2017 urteko ekainaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratuz, erreklamaziorik, konponbiderik edo oharpenik aurkeztu ez delarik.

Ikusirik espediente osoa Udalbatzarraren ezagupenean jarri dela.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Udalbatzarreko Lehendakariak emandako 2016 ekitaldiko Kontu Orokorra onestea.

BIGARRENA.- 2016ko ekitaldiko Kontu Orokorraren espedientearen berri Kontuetako Hauzitegiari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

E.O. ANDREAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik E.O. andreak eginiko eskaerak, non dioten, batetik, La Txabola izeneko eraikinerako udal hargunetik ura hartzeko lanak egiteko baimena eman zitzaiola 2017ko ekainaren 20an, 1.000 eurotako fidantza jartzearen



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

baldintzapean. Aipaturiko fidantza 2017ko ekainaren 23an jarri zen eta lanak bukatu direnez, jarritako fidantza bueltatzeko eskaera egiten du.

Bestetik LA CABAÑA-ren izena aldatzeko baimena eskaera egiten du, LIZARDI BORDA izen berria izanik.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- E.O. andreak eginiko eskaera onestea, hau da, La Txabola izeneko eraikinerako udal hargunetik ura hartzeko lanak egiteko jarritako 1.000,00 eurotako fidantza bueltatzea.

BIGARRENA.- E.O. andreak eginiko eskaera onestea, hau da LA CABAÑA Txabolari LIZARDI BORDA izena jartzeko baimena ematea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauen berri E.O. andreak ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

TXANTXANGORRI ALDIZKARIAN HERRIKO JAIETAKO PUBLIZITATEA JARTZEKO ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik, Txantxangorri aldizkarian, Alkizako jaien publizitatea jarri nahi dela, horretarako eskatu delarik honen aurrekontua. Proposamenen artean, bi modulutako publizitatea jartzea egokiena dela erabakitzen delarik.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek, aho batez,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Alkizako jaien publizitatea Txantxangorri aldizkarian jartzea. Bi moduluko iragarkia jarriko delarik.

BIGARRENGOA.- Erabaki honen berri Belako publizitatea eta komunikazioari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO UDALARENTZAT HIRIGINTZA ETA ARKITEKTURARI BURUZKO AHOLKULARITZA ZERBITZUEN ESLEIPENA, HALA BADA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik Alkizako Udalarentzat hirigintza eta arkitekturari buruzko aholkularitza zerbitzua, Alkizako Udalean eskaintzen jarraitu nahi dela, astean bi ordu Udaletxean dagokion zerbitzua eskainiaz.

Ikusirik, Eba Erkizia Brion arkitektoari aurrekontu bat eskatu zaiola, aipaturiko zerbitzua prestatzeko.

Ikusirik Eba Erkizia Brion arkitektoak aipaturiko aurrekontua aurkeztu duela, ondorengo diolarik:

“ALKIZAKO URDALARENTZAT HIRIGINTZA ETA ARKITEKTURARI BURUZKO AHOHKULARITZA ZERBITZUEN LAN PROPOSAMENA

Proposamen honen helburua, Alkizako Udalarentzat hirigintza eta arkitekturari buruzko aholkularitza gidatuko dituzten irizpideak zehaztea izango da.

1.-GARATU BEHARREKO LANAK

Egin beharreko lanak hurrengoak izango dira:

- *Herritarren hirigintza kontsultei arreta zerbitzua.*
- *Obren kontrola.*
- *Obra txikien baimenari buruzko espedienteen txostenak.*
- *Obra handien baimenari buruzko espedienteen txostenak.*
- *Sailkatutako jardueren baimenari buruzko txostenak.*
- *Jarduera salbuetsien baimenari buruzko txostenak.*
- *Planeamendu tresneri buruzko hirigintza txostenak.*
- *Gestio tresneri buruzko hirigintza txostenak.*
- *Hirigintza diziplinako txostenak.*
- *Segregazioei buruzko txostenak.*
- *Hirigintza balorazioak.*
- *Alkateak, udal bazkideek edo udal idazkaritzak eskatutako beste edozein motatako txosten edo azterketak egitea.*

Lan hauetaz gain, eta udalak eskaturik hirigintza aholkularitzarekin loturiko lan eta informazio bileretara joango da, bai udaletxean bertan edota kanpo administrazioetan, ala nola Diputazioan, Eusko Jaurlaritzan...

Era berean eta kasua balitz, obra eta hirigintzako udal batzordeetara joango da, udal bazkideek beraien erabaki hartzeetan aholkua emateko.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2.-LANTOKIA

Herritarrentzat aholkularitza zerbitzuak eta bestelako hirigintza lanak, astero bi orduz udaletxean egingo dira.

Denbora honetatik kanpo egin ezin diren txosten edo aholkularitza lanak, sinatzen duen arkitekto honen bulegoan egingo dira, eta gehienez, beraien eskaeratik bi aste barruan entregatuko dira.

Bilerei dagozkien beste lanak, udaletxean bertan edo dagokion administrazioan burutuko dira.

3.-ORDAINSARIA

Udaletxean hilero aholkularitza lanetik jasotako ordainsaria 532,88€ (BEZ-a gabe) izango da.

Ordu hauetatik kanpo gertatzen diren lanen ordainsaria, egindako lanordu kopuruetan eta joan-etorrietan erabilitako denboran neurtuko da, hilero 53,29€/orduko fakturaturuz, ondoren dagokion BEZ-a gehituz. Hurrengo urteei dagokienez, kopuru hau "kontsumo prezioen indizea"-aren arabera gehituko da."

Ikusirik aipaturiko kontratua, kontratu txiki bat dela ez delako 18.000 eurotako gastua gainditzen.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA: Eba Erkizi Brion Arkitektoari, Alkizako Udalarentzat hirigintza eta arkitekturari buruzko aholkularitza zerbitzuaren kontratua esleitzea, urtebetez, 2017ko irailean hasiko delarik bere zerbitzua prestatzen. Asteaz bi orduz, Alkizako Udaletxean bere zerbitzua eskainiko duelarik, hilean 532,88 eurotako diru-kopuruaren truke. Aipaturiko ordutegi horretarik aparte, Udalak eskatutako lanak egiteagatik fakturako duen ordainsaria 53,29€/ordukoa izango da.

BIGARRENA: Eba Erkizia Brion Arkitektoari jakinaraztea, Alkizako Udaletxera bertaratu beharko duela dagokion kontratua sinatzera.

HIRUGARRENA: Jon Umerez Urrezola Alkate-Lehendakari jauna aipaturiko kontratua sinatzeko ahalmena ematea



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LAUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA
HERRIKO JAIETAN EGITEN DIREN GASTU JUSTIFIKAGARRIEN
ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik, Herriko festetan presazko hainbat ordainketa burutzen direla, Udaletxeak fakturak ordaintzeko jarraitzen duen prozedura ezin delarik erabili.

Aipaturiko arazo hauek saihesteko Udaletxeak, Jaietako zinegotziari, hau da, Uxue Etxebeste andreari 1.000 euro emango dizkio. Jaiak bukatu ondoren, Etxebeste zinegotziak, eginiko gastu guztien justifikazioa Udaletxeari aurkeztu beharko diolarik.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA: Uxue Etxebeste zinegotziari 1.000 euro ematea, herriko jaietan egiten diren presazko gastuak egiteko.

BIGARRENA: Uxue Etxebeste zinegotziari jakitera ematea, herriko jaiak bukatu ondoren, Udaletxe honetan, emandako diru kopuruaren gastuak justifikatu beharko dituela, dagokion frogagirikin.

HAMARGARREN PUNTUA
ARTXIBO LANAK EGITEKO LANEN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik udal artxiboko mantenu lanak, Consuelo Urteaga andreak egiten dituela, bi edo hiru urtez behin.

Ikusirik, 2014,2015 eta 2016 urteko udal artxiboko mantenu lanak egiteko daudela.

Ikusirik, Consuelo Urteaga andreari aurrekontu bat eskatu zitzaiola mantenu lan hauek egiteko. Bere zenbatekoa 1.694,00 euro izanik.

Ikusirik, Kontratu txiki baten aurrean gaudenez, aipaturiko mantenu lanak egiteko esan zitzaiola.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik, Consuelo Urteaga andreak 2014,2015 eta 2016 urteko udal artxiboko mantu lanak amaitu dituela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Consuelo Urteaga andreak aurkezturiko faktura onestea eta bere ordainketa burutu dadin agintzea, 2014,2015 eta 2016 urteko udal artxiboko mantu lanak egiteagatik, bere zenbatekoa 1.694,00 euro direlarik.

BIGARRENA: 1.694,00 eurotako gastua onestea, udal aurrekontuetako 1.0000.480.335.00.01 partidaren kargura.

HAMAİKAGARREN PUNTUA

2017 URTERAKO LANGILEEN OPOR EGUTEGIAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Udal langileak aurkeztu dutela 2017 urterako lan eta opor egutegiak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Udal langileak aurkezturiko 2017 urterako opor egutegien onespena.

HAMABIGARREN PUNTUA

2017 EKITALDIRAKO LANGILEEN ORDAINSARIEI BURUZKO EUDELEK EGINIKO GOMENDIOAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik EUDEL-ek , 2017 urterako langileen ordainsariei buruzko gomendioa egin duela, ondorengoa diolarik:

LANGILEEN ORDAINSARIEI BURUZKO GOMENDIOA 2017KO EKITALDIRAKO

2017ko ekainaren 28an, **2017. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legea** argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Langileen gastuei buruzkoa den lege horren Hirugarren Tituluak honako hau xedatzen du **18. artikuluan. Bi:** ***“2017. urtean, sektore publikoko langileen ordainsarien igoera globala ez da inola ere izango 2016ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariak baino %1 handiagoa, konparatutako bi denboraldien homogeneotasunari dagokionez, hala langileei begira, nola antzinakotasunari begira”.***

2017ko uztailaren 13an izandako bileran, EUDELen Batzorde Eragileak hori aztertu du, eta komenigarritzat jo du EAEko udaletan artikulua horren interpretazioa eta ezarpena erraztea eta bultzatzea, langile publikoentzat ahalik eta onuragarrien izan dadin. Gainera, hori lagungarria izan daiteke UDALHITZ 2017 Akordio Arautzailearen negoziazioari begira. Horiek horrela, udalei, mankomunitateei eta gainerako erakunde publikoei GOMENDATZEN DIE neurri hau onar dezaten:

%1EKO ORDAINSARI IGOERA 2017KO EKITALDIAN

2017ko ekitaldian, sektore publikoko langileen ordainsariak %1eko igoera izatea, 2016ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekin alderatuta, konparatutako bi denboraldien homogeneotasunari dagokionez, hala langileei begira, nola antzinakotasunari begira, 2017. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legeak 18.2 artikuluan jasotako aukerarekin bat etorrita.

Neurria ezartzean, dagozkion doikuntzak egin beharko dira, ordainsarien igoerak urte honetako urtariletik aurrera izan ditzan ondorioak.

Ikusirik, 2017 urteko aurrekontuan partida nahikoa badagoela gomendio hau aplikatzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: EUDEL-ek, 2017 urterako langileen ordainsariei buruzko gomendioa bere osotasunean onartu eta aplikatzea.

HAMAHIRUGARREN PUNTUA

ALKIZAKO HERRITARREI EUSKARA IKASKETAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERAREN ONESPENA, HALA BADA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik Alkizako herritarrei euskara ikasketak burutzeko diru-laguntza deialdia kaleratu dela, hiru herritarren eskaerak izan ditugularik.

Ikusirik Alkizako Udalak herritarren euskaratze prozesua bultzatu nahi duela.

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiak horrelako ekintzak bultzatzeko diru-laguntzak atera dituela.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Gipuzkoako Foru Aldundiak Euskararen erabilera soziala normalizatzeko tokiko planak garatzeko diru-laguntza eskaera egitea, 2017 urteari dagokiona.

BIGARRENA.-M.A. andreak eginiko 400 eurotako diru-laguntza eskaera onestea, euskara ikastaroa egiteko.

HIRUGARRENA.- J.M. andreak eginiko 350 eurotako diru-laguntza eskaera onestea, euskara ikastaroa egiteko.

LAUGARRENA.- B.B.. andreak eginiko 351 eurotako diru-laguntza eskaera onestea, euskara ikastaroa egiteko.

BOSTGARRENA: Erabaki hauen berri M.A. , B.B. eta J.M. andreei ematea.

HAMALAU GARREN PUNTUA

ARRATE IRRATIAK AURKEZTURIKO AURREKONTUAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Arrate Irratiak S.L.-k igorritako 2017 urteko Alkizako jaietarako aurrekontua, non aste batean, egunean bi kuina emateagatik 90€+BEZ ko balioa izango duen aurrekontua igortzen duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Arrate Irratiak S.L. –k igorritako 2017 urteko Alkizako jaietarako aurrekontua onestea, bere kostua 90 euro+BEZ izango delarik. Bertan aste batean egunean bi kuina eskainiko dituztelarik.

HAMABOST GARREN PUNTUA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

MUGA RUNCH-ek EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik, Muga Runch-eko administraria den J.B.G. jaunak eginiko eskaera, non ondorengo dioen:

“Ostatu azpian dagoen harresian eraztun batzuk (elizetan jartzen direnak bezalakoak) jarri ahal izatea, gure bezeroekin zaldi irteerak egiten ditugunean zaldiak lotu ahal izateko eta bidean atsedean hartu ahal izateko.

Gure eskaera onartuz gero, gu arduratuko ginateke eraztunen hornikuntzaz eta muntaiaz, Udaletxeak inolako kosturik eduki gabe.

Egindako eskaera kontuan izango duzuelakoan, zuen erantzunaren zain geratzen gara.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.B.G. jaunak Muga Runch-en izenean eginiko eskaera onestu, non Ostatu azpian dagoen harresian zaldiak lotzeko eraztun batzuk jartzeko baimena ematea, ondorengoari baldintzaturik:

-Baimena prekarioan emango da, hau da, baimena emandako helburua bukatzean, hau eman aurretik zegoen egoeran utzi beharko da.

-Ingurua txukuna eta garbia mantendu beharko da. Zaldien kakak bilduaz.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari ematea.

HAMASEIGARREN PUNTUA

BELEBURUPE GURASO ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Beleburupe guraso elkarteak, ekaineko egun osoko festan, San Juan bezperako festan, herriko festetan, San Martin eguneko festan eta gabonetan hainbat ekintza burutzen dituztela. Hauen kostua finantzatzeko Alkizako Udalarri diru-laguntza eskaera egiten dielarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENA: Beleburupe guraso elkarteari 320 eurotako diru-laguntza ematea, urtean zehar hainbat ekintza burutzeko.

BIGARRENA: 320 eurotako gastua onartzea.

HIRUGARRENA: Beleburupe Guraso Elkarteari jakitera ematea, egin duen gastuen memori bat aurkeztu beharko duela, Udalak emandako diru-laguntza zurituaz.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.

HAMAZAZPIGARREN PUNTUA
LETEBERRI-GARRO BIDEAREN KONPONKETA LANEN ESLEIPENA,
HALA BADA

Ikusirik Leteberri-Garro herri bidearen konponketa lanak egiteko asmoa duela Alkizako Udalak.

Ikusirik Leteberri-Garro herri bidea konpontzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia sustapeneko, Landa ingurune eta Lurralde Oreka departamentuak, 18.895,10 eurotako diru-laguntza esleitu diola Alkizako Udalari.

Ikusirik, aipaturiko bidea konpontzeko lanak esleitzeko hiru aurrekontu eskatu direla, nahiz eta kontratu txiki bat izan. Eskatutako aurrekontuak, ondorengoak izanik: Bixente Otegi Lizaso, S.L., Landa e Imaz, S.A. eta Sasoi Eraikuntzak.

Ikusirik, Udal Aholkulari Teknikoa den, Eba Erkizia arkitektoak, aurkezturiko hiru aurrekontuak aztertu ondoren, Bixente Otegi Lizaso, S.L. enpresak aurkezten dituela orokorrean prezio unitario merkeenak, ondorioz, bere esleipen proposamena Bixente Otegi Lizaso, S.L enpresaren alde izango da.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Leteberri-Garro herri bidearen konponketa lanak egiteko onespena.

BIGARRENA: Leteberri-Garro bidea konpontzeko lanak Bixente Otegi Lizaso, S.L enpresari esleitzea, 21.000 eurotako diru kopuruan. Lanak amaitzean metroen neurketa zehatza egingo delarik.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA: Gastua 2017 aurrekontuetako 1 0000.601.153.20.01 partidaren kargura egitea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Bixente Otegi Lizaso, S.L., Landa e Imaz, S.A. eta Sasoi Eraikuntzak enpresei ematea.

HEMEZORTZIGARREN PUNTUA
ALKIZAKO BASERRIEN SEINALEZTAPENAREN ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako baserrien seinaleztapenaren lanak egiteko asmoa duela Alkizako Udalak.

Ikusirik Alkizako baserrien seinaleztapenaren lanak egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia sustapeneko, Landa inguruneke eta Lurralde Oreka departamentuak, 14.153,96 eurotako diru-laguntza esleitu diola Alkizako Udalari.

Ikusirik, aipaturiko lana egiteko, kontratu txiki bat izanik, aurrekontu bat eskatu zaiola GALEMYS, S.L. enpresari. Bere zenbatekoa 17.995,00 euro delarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako baserrien seinaleztapenaren lanak egiteko onespena ematea.

BIGARRENA: Alkizako baserrien seinaleztapenaren lanak egiteko GALEMYS S.L. enpresari esleitzea, 17.995,00 eurotako diru kopuruan.

HIRUGARRENA: Gastua 2017 aurrekontuetako 1 0000.625.153.00.01 partidaren kargura egitea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri GALEMYS S.L. enpresari ematea.

HEMERETZIGARREN PUNTUA
ALKIZAKO HILERRIAN EGIN BEHAR DIREN LANEN ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako hilerrian hainbat egokitzapen lanak egin behar direla, hutsik gelditzen den nitxo bakar bat daoenez.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik Udal Aholkulari Teknikoak, aipaturiko lan hauen artean kolunbarioak egitea, fosa komun bat egitea eta barruan dagoen muroa bota eta hilerriari espazio garbi gehiago ematea, proposatzen duela.

Ikusirik, aipaturiko lanak esleitzeko aurrekontu bakarra eskatu dela, kontratu txiki baten aurrean gaudelako. Eskatutako aurrekontua ondorengo enpresari izanik: LAU HAIZETARA S.L.

Ikusirik LAU HAIZETARA S.L. –ek aurkezturiko aurrekontua, bere zenbatekoa 10.601,33 euro izanik (BEZ barne).

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako hilerrian egin behar diren lanak egiteko onespena.

BIGARRENA: Alkizako hilerrian egin behar diren lanak LAU HAIZETARA, S.L enpresari esleitzea, 10.601,33 eurotako diru kopuruan.

HIRUGARRENA: Gastua 2017 aurrekontuetako 1 0000.622.164.00.01 partidaren kargura egitea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri LAU HAIZETARA, S.L enpresari ematea.

HOGEIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

20.1. TOLOSALDEA GARATZEN EK EGINIKO ESKAERA AZTERTU, ESKUALDEKO PROIEKTU ESTRATEGIKOTARAKO FUNTSA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldea Garatzen-ek eginiko eskaera, non Alkizako Udalarri eskatzen dion, 2014,2015,2016 eta 2017 urteetarako hartua duen konpromisoaren arabera, 2017 urteari dagokion ekarpena egin diezaiola Tolosaldeko Proiektu Estrategikoen Funtzari, Tolosalderako estrategikoak izan daitezkeen proiektuak bideragarri bihurtzeko baliabideak bermatuz eta horrela eskualdera, eta ondorioz, Larraulgo udalerrira ere, enplegua eta aberastasuna sustatzeko bide berriak irekiz.

Urteko ekarpena udalerrri bakoitzak aurreko urtean IAE kontzeptuan kobratutako kopuru totalaren %10 izango da.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik, badaudela herri txiki batzuk IAE kontzeptuan ez dutela ezer kobratzen. Hau kontutan izanik, Herri txikien arteko bilera baten ostean, hauek adostu zuten ekarpen finko bat egitea Tolosaldea Garatzen, proiektu estrategikoen funtsari, Udaletxe txiki bakoitzak 500 eurotako ekarpena egingo duelarik.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Tolosaldea Garatzen-i 500 eurotako ekarpena egitea, 2017. urteari dagokion Tolosaldeko Proiektu Estrategikoen funtserako.

BIGARRENGOA.- 500 eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENGOA.- Erabaki honen berri Tolosaldea Garatzen-i ematea.

20.2. AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI, 2017KO 3. ETA 4. HIRUHILEKO EKARPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2017ko uztailaren 4an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2017 ekitaldiko 3. eta 4. hiruhilabetean sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Alkizako Udalak burutu beharreko ekarpena 21.000,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, Alkizako udalak eskatuta, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

-Gizarte zerbitzuak: 12.000,00 euro

-Kultura: 9.000,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 21.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2017 ekitaldiko 3. eta 4. hiruhilabetean sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko. Kontzeptu hauetan banatuta:

-Gizarte zerbitzuak: 12.000,00 euro

-Kultura: 9.000,00 euro

BIGARRENA.- 21.000,00 eurotako gastua onartzea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

HOGUITABATGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 20.00 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.